

# EGIAZKO ZORIONA EZ DA DIRUZ EROSTEN



2017/2018

Tutoretzak

ERABILI ZURE DENBORA LIBREA MEREZI DUENERAKO  
Zuk zeuk irabaziko duzu, eta planetak eta guztiok irabaziko dugu.



BATXILERGOA

## IRAKASLEGOA

### Gaiari buruzko sarrera

Azken urteotan gure ikastetxeetan gauzatutako garapenerako hezkuntzako kanpainak izendatzailerikomuna dute: kontsumo arduratsua, hainbat ikuspegitatik begiratuta (elikadura, ingurumena, moda, etab.). Gure kontsumo-ereduen erritmo azkarraren ondorioz, zehazki, herrialde aberatsetako gizarteetako kontsumoaren ondorioz, milioika pertsonaren eskubideak urratzen direla ikusidugu.

Ikasturte honetan, **propositiboak izan nahi dugu**, eta **bizimodu apala** egiteko gonbita egin nahi diegu gure ikastetxeetako ikasleei, kontsumoaren inguruan mugatzen ez diren balioez eta esperientziez gozatzeko; horrela, ingurumena ez dugu kaltetuko eta munduko beste pertsonen bizibaldintzei ez diegu eraso egingo.

Gure denbora adrenalinaz betetako entretenimendu sofistikatuekin betetzeko ohitura hartu dugu, eta estresa eta hondakinak sortzen dituzte horrelakoek; eta haurrei helarazten diegu bizitzeko eredu hori. Badirudi gure aisialdiaz eta gure bizitzako plazer arruntez gozatzeko modua ahazten ari garela.

Ikasturte honetan, gure ikasleei ikusarazi nahi diegu badirela beste modu batzuk gure denbora librea bizitzeko eta hartaz gozatzeko, **errespetutik, solidaritatetik, elkarbizitzatik, soiltasunetik** eta **naturaren zaintzatik** datozenak.



### Tutoretzen helburu nagusia

Gure denbora libreaz egiten dugun erabilerari buruz gogoeta egitea, eta kontsumoan oinarritzen ez diren eta giza eta ingurumen-eskubideak urratzen ez dituzten aisialdi-aukeren alde egiteko gure gaitasunak garatzea.

# JARDUERAK

## 0. jarduera (kanpainaren bideo nagusia - GAZTEAK): **Non dago zoriona?**

**Zer gai lantzen dituen:** materialismoa, kontsumoa, soiltasuna eta apaltasuna

**Aurreikusitako denbora:** 50'

**Jarduera mota:** rol-jokoa, bideoari buruzko gogoeta egiteko

**Laburpena:** bideoa ikusi ondoren, taldeek iragarki bat aukeratuko dute aldizkari batetik; publizitate-agentearen rola hartuz, marketin-ekintza bat prestatuko du talde bakoitzak, gainerako kideak produktu hori erostera bultzatzeko. Salmenten esparruko gehiegikeriak kontuan hartuta, egunero gure arreta eskatzen duten publizitate-mezu ugari buruzko gogoeta egingo da, sarritan, behar ez ditugun produktuak erosarazten baitizkigute. Bideoaren eta publizitate-agenteei konbentzitzeko egiten duten lanaren arteko kontrasteak argi eta garbi erakutsiko du zeintzuk diren bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzak.

### Helburuak:

- Publizitateak manipulatzeko izan ohi duen asmoari buruz gogoeta egitea.
- Gure bizitzan garrantzitsua dena eta ez dena zehaztea.

**Materiala:** 20-30 aldizkari, artaziak ikasle bakoitzarentzat, papera, kola eta arkatz markatzaileak.

**Jarraibideak:** bideoa ikusi ondoren...

- Lehenengo, hiruzpalau laguneko taldeak osatuko dira, eta aldizkariak banatuko zaizkie ausaz (2 edo 3 aldizkari talde bakoitzari).
- Gehien interesatzen zaion iragarkia bilatuko du talde bakoitzak. Iragarki hori moztu, eta orrian itsatsiko du, jendartean aurkezteko.
- Produktua saltzen laguntzeko, datu gehiago biltzen dituzten beste orri batzuk ere erabil ditzake taldeak (adibidez, grafikoak, datuak edo aldizkariko beste irudi batzuk).
- 15 minutu izango dituzte iragarkia prestatzeko, eta minutu bat, berriz, aurkezteko. Beraz, ongi aukeratu behar dira produktua saltzeko erabiliko diren mezu erakargarriak, telebistako iragarki batek irauten duen denbora berean saldu behar dutela produktua kontuan hartuta.
- Tutoretzako azken unea ikasleek honako gai hauen inguruan hitz egin dezaten erabiliko da:
  - Zer iruditu zaigu bideoa?
  - Bideoa ikusi ondoren, nola sentitu gara iragarkia aurkeztean?
  - Tutoretzako saio honen ondoren, desberdin pentsatzen eta sentitzen dugu?



## 1. jarduera: EGIASKO ZORIONA EZ DA DIRUZ EROSTEN

---

**Zer gai lantzen dituen:** Zoriona

**Aurreikusitako denbora:** 50'

**Jarduera mota:** Tertulia

**Laburpena:** Sarrerako bideo batekin hasiko da saioa, eta, hortik aurrera, ideia-jasa bat egingo da zorionaren esanahiari buruz. Gero, tertuliak egingo dira talde txikitan, eta, bukatzeko, amaiera emango zaio saioari.

### Helburuak:

- Egungo egoerari buruzko pentsamendu kritikoaren testuinguruan kokatzea ikaslea, hainbat metodologia erabiliz, hala nola brainstorming edo ideia-jasa, tertulia dialogikoak, kasuen azterketa etab., horrela, inguruan dugun informazioa bereizteko eta inguruan dugunarekin kritikoak izateko.
- Zoriona sentiarazten diguten eguneroko egoerak ezagutzea, bideoetan, bizipenetan eta bateratze-lanetan oinarrituta, ikasle bakoitza osotasunez, gogobetetasunez eta zoriontsu garatzea eragozten duten ohiturak aldatzeko.
- Zoriona eta "berehalako zoriona" (zorion materiala, diruarekin lotzen dena) bereiztea, taldean lan eginez eta banaka gogoeta eginez, gure egunez egunekoan inguruan ditugun zorion-ekintzak eta sasi-zoriona adierazten duten ekintzak identifikatzeko eta barneratzeko.

### Materiala:

- Arbela
- Klariona
- Proiektorea eta bideoa

### Jarraibideak:

#### **Gaiaren aurkezpena, 5'**

Saio honetan, sarrera bat egingo dugu, lehen saioa dugunez. Horretarako, honako bideo hau proiektatuko da: SOLO TU <https://www.youtube.com/watch?v=3P4bCeUp8QI>

#### **Idea-jasa: Zoriona, 15'**

Ondoren, zorion hitza idatziko da arbelean. Gero, ikasleen esku utziko da klariona, eta, ideia-jasaren metodoa erabiliz, zorionarekin lotzen dituzten hitzak idatz ditzaten utziko zaie.

#### **Tertulia (1-2-4) 27'**

Hitzak idazteari uzten diotenean, arbelean utziko dira, eta tertulia prestatzen hasiko dira; lau pausotan egingo da, progresiboki. Lehenengo, gogoeta txiki bat egin behar du bakoitzak (baita irakasleak ere), eta arbeleko bi hitz aukeratuko ditu, pertsona horrentzat zoriona zer den definitzeko balioko dutenak. Ondoren, binaka jarriko dira, eta hitz horiek zergatik aukeratu dituzten azalduko diote elkarri. Horrez gain, bildutako lau hitz horietatik bi aukeratu beharko ditu bikote bakoitzak. Gaia binaka aztertu ondoren, lau laguneko taldeetan bateratuko dute egindako lana (bikoteka jardun dutenean bezala lan egingo dute). Azkenik, ikastalde osoa bilduko da berriro, eta, taldez talde (lauko taldeak), zertaz jardun duten azalduko dute. Horrez gain, bi kontzeptu aukeratuko dituzte

ikastalde osoan, egunez egunekoan zoriona bilatzearekin lotutako sinbolo gisa horman eskegitze-ko. (3' banakako lanerako -4' bikoteka lan egiteko - 5' taldeka lan egiteko - 15' ikastalde osorako).

### Saioaren amaiera 3'

Atal honetan, zer moduz sentitu diren aztertuko dute ikasleek, eta atseden hartzeko eta hurrengo eskola-saiorako indarrak hartzeko denbora pixka bat utziko zaie; horrez gain, egindako lan onaren saria ere izango da (atsedena emanez buruari, ikasitakoa barneratzeko).



## 2. jarduera: ZER DA ZORIONA NIRETZAT?

**Zer gai lantzen dituen:** Zoriona

**Aurreikusitako denbora:** 50'

**Jarduera mota:** Bideoa ikustea eta gogoeta; gutun bat idaztea

**Laburpena:** Saio honetan, Martín Tetaz-en bideo bat ikusiko da; gogoetarako gonbita egiten zaie ikasleei bideoan. Gero, gutun bat idatziko dio ikasle bakoitzak bere buruari.

### Helburuak:

- Egungo egoerari buruzko pentsamendu kritikoaren testuinguruan kokatzea ikaslea, hainbat metodologia erabiliz, hala nola brainstorming edo ideia-jasa, tertulia dialogikoak, kasuen azterketa etab., horrela, inguruan dugun informazioa bereizteko eta inguruan dugunarekin kritikoak izateko.
- Zoriona eta "berehalako zoriona" (zorion materiala, diruarekin lotzen dena) bereiztea, taldean lan eginez eta banaka gogoeta eginez, gure egunez egunekoan inguruan ditugun zorion-ekintzak eta sasi-zoriona adierazten duten ekintzak identifikatzeko eta barneratzeko.
- Zorionari dagokionez, nire egoera pertsonalari buruzko gogoeta egitea eta taldean partekatzea, ahoz eta idatziz, beharrezkoa bada nire egunez egunekoan zenbait jokabide aldatzeko eta, horrela, zoriontsuago izateko.

### Materiala:

- Proiektorea eta bideoa
- DIN-A4 orriak.


### Jarraibideak:

#### **Aurreko egunean egindakoa berrikustea 5'**

Lehen saioan egin zuten lanaz hitz egingo dute ikastalde osoan. Horrez gain, bateratze-lan horretan ateratako bi hitzak ezarriko ditu irakasleak ikasgelan.

#### **Martín Tetazen bideoa 25'**

Une honetara iristean, Martín Tetazen bideo bat ikusiko da; zorionaz hitz egiten da bideoan, eta diruz eros daitekeen edo ez aztertzen da. Bideoa ikusi ondoren, iruzkin labur bat egingo da taldean, 5 minutuan gutxi gorabehera, eta garrantzitsuena iruditu zaienaz edo harrigarria iruditu zaienaz hitz egingo dute. <https://www.youtube.com/watch?v=-NjWoZ7hYl4>



### **Gutun bat idaztea 15'**

Zorionari buruzko Martín Tetazen bideoa ikusi eta horri buruz hitz egin ondoren (lehen saioan beste eduki batzuk ere landu dira gainera), gutun bat idazteko gonbita egingo zaie ikasleei. Gutuna idazteko, honako galdera hauek jarriko zaizkie, gogoetarako sarrera gisa (ez daukate galderei jarraitu beharrik, hala ere).

- Zer da zoriona niretzat?
- Zoriontsu naiz?
- Zertan oinarritzen dut nire zoriona?
- Zer aldatuko nuke nire egunez egunekoan zoriontsuago izateko?

\*(laugarren saioan itzuliko zaie gutuna)

### **Saioaren amaiera 5'**

Atal honetan, zer moduz sentitu diren aztertuko dute ikasleek, eta atseden hartzeko eta hurrengo eskola-saiorako indarrak hartzeko denbora pixka bat utziko zaie; horrez gain, egindako lan onaren saria ere izango da (atsedena emanaz buruari, ikasitakoa barneratzeko).

## 3. jarduera: ZORIONAREN PREZIOA

---

**Zer gai lantzen dituen:** Zoriona

**Aurreikusitako denbora:** 50'

**Jarduera mota:** Bideoa ikustea eta gogoeta

**Laburpena:** Jarduera honetan, zorionari eta zoriona erosteko aukerari buruzko bideo bat ikusiko da. Gero, arrantzale bati buruzko kontakizun bat irakurriko da, eta gogoeta egingo da.

### Helburuak:

- Egungo egoerari buruzko pentsamendu kritikoaren testuinguruan kokatzea ikaslea, hainbat metodologia erabiliz, hala nola brainstorming edo ideia-jasa, tertulia dialogikoak, kasuen azterketa etab., horrela, inguruan dugun informazioa bereizteko eta inguruan dugunarekin kritikoak izateko.
- Zoriona sentiarazten diguten eguneroko egoerak ezagutzea, bideoetan, bizipenetan eta bate-ratze-lanetan oinarrituta, ikasle bakoitza osotasunez, gogobetetasunez eta zoriontsu garatzea eragozten duten ohiturak aldatzeko.
- Zoriona eta "berehalako zoriona" (zorion materiala, diruarekin lotzen dena) bereiztea, taldean lan eginez eta banaka gogoeta eginez, gure egunez egunekoan inguruan ditugun zorion-ekintzak eta sasi-zoriona adierazten duten ekintzak identifikatzeko eta barneratzeko.

### Materiala:

- Proiektorea eta bideoa
- Arrantzale bati buruzko kontakizuna

### Jarraibideak:

#### **Aurreko egunean egindakoa berrikustea 2'**

Bigarren saioan egindakoa eta landutakoa berrikusiko da ikastalde osoarekin.

#### **Michael Norton-en bideoa 18'**

Saioaren une honetan, Michael Nortonen bideoa ikusiko da (ingelesez dago, baina azpituluekin ikusteko aukera ematen du Youtubek); zorionaz hitz egiten da bideoan, eta eros daitekeen edo ez aztertzen da. Bideoa ikusi ondoren, iruzkin labur bat egingo da taldean, 3 minutuan gutxi gorabehera, eta garrantzitsuena iruditu zaienaz edo harrigarria iruditu zaienaz hitz egingo dute.

<https://www.youtube.com/watch?v=ZwGEQcFo9RE>

#### **Kasu praktikoa 25'**

Arrantzale baten eta amerikar bankari baten arteko elkarrizketa landuko da atal honetan. Lehen eranskinean dator kontakizuna (bideoa jarri nahi bada, hona hemen esteka: [https://www.youtube.com/watch?time\\_continue=25&v=0pBrHqsQUMw](https://www.youtube.com/watch?time_continue=25&v=0pBrHqsQUMw)). Kasu praktikoa irakurri ondoren, gogoeta egingo da 1-2-4 metodologian oinarrituta, eta baliagarri izango da kontakizun horretatik zer atera dezaketen aztertzeko; horrez gain, norberaren ulermen edo ikuspegiari beste ikuspegi batzuk eransteko aukera emango du horrek, eta ikaskuntza esanguratsuagoa egin ahal izango dugu horrela, elkarrizketa eta jarrera dinamikoa bultzatzeaz gain.





## Saioaren amaiera 5'

Atal honetan, zer moduz sentitu diren aztertuko dute ikasleek, eta atseden hartzeko eta hurrengo eskola-saiorako indarrak hartzeko denbora pixka bat utziko zaie; horrez gain, egindako lan onaren saria ere izango da (atsedena emanaz buruari, ikasitakoa barneratzeko).

## 4. jarduera: ZORIONAREN ERRITMOA

---

**Zer gai lantzen dituen:** Zoriona

**Aurreikusitako denbora:** 50'

**Jarduera mota:** Abesti bati buruzko gogoeta, eta ebaluazioa.

**Laburpena:** Aurreko eguneko berrikusi ondoren, bideo klip bat ikusiko dute ikasleek, ahotsik gabe. Gero, hitzak emango zaizkie, eta abestia entzungo dute. Batez ere zerk harritu dituen gehien aztertuko dute, gogoeta eginez. Hori egin ondoren, ebaluazioa egingo da, eta saioa amaituko da.

### Helburuak:

- Egungo egoerari buruzko pentsamendu kritikoaren testuinguruan kokatzea ikaslea, hainbat metodologia erabiliz, hala nola brainstorming edo ideia-jasa, tertulia dialogikoak, kasuen azterketa etab., horrela, inguruan dugun informazioa bereizteko eta inguruan dugunarekin kritikoak izateko.
- Zoriona sentiarazten diguten eguneroko egoerak ezagutzea, bideoetan, bizipenetan eta bate-ratze-lanetan oinarrituta, ikasle bakoitza osotasunez, gogobetetasunez eta zorionsu garatzea eragozten duten ohiturak aldatzeko.
- Zoriona eta "berehalako zoriona" (zorion materiala, diruarekin lotzen dena) bereiztea, taldean lan eginez eta banaka gogoeta eginez, gure egunez egunekoan inguruan ditugun zorion-ekintzak eta sasi-zoriona adierazten duten ekintzak identifikatzeko eta barneratzeko.

### Materiala:

- Shottak Morodorekin abesten duen kanta
- Ikasleen gutuna

### Jarraibideak:

#### **Aurreko egunean egindakoa berrikustea 5'**

Bigarren saioan egindakoa gogoratuko da ikastalde osoarekin.

#### **Felicidad abestia, Shotta ft. Morodo 25'**

<https://www.youtube.com/watch?v=Vvhz8dWuqsM>

Une honetara iritsita, bi aldiz entzungo da Shotta-ren Felicidad abestia, Morodo-rekin abesten duena (fotokopiatzeko eta ikasleei banatzeko abestiaren hitzak, 2. eranskinean). Lehenengo al-dian, bideo klipa ikusiko da, hitzak eman gabe. Gero, abestiaren hitzak banatuko zaizkie, eta ez dute bideoa ikusiko (muska entzungo dute soilik). Ondoren, bateratze-lana egingo dute bideoaren inguruan. Lana hori egiten dutenean, gogoeta egingo dute banaka, bakoitzari harrigarriena zer gertatu zaion aztertzeko, eta ez dute idatziko. Eta 2. saioan idatzitako gutuna emango die ikasleei irakasleak. Denbora pixka bat utziko zaie irakurtzeko, sentitu dutenez banaka gogoeta egiteko eta egun hauetan zer-nolako bilakaera bizi izan duten aztertzeko.

#### **Ebaluazioa 16'**

Atal honetan, bi zati bereiziko dira (8' bakoitzak). Bata auto-ebaluazioari dagokio (irakasleak era-bakiko du), eta nola egin nahi den ikusiko da; kalifikazioa kuantitatiboa edo kualitatiboa izango den,

idatziz egingo den edo modu dinamiko batean, etab. Saioetan landutakoari buruzko ebaluazioa ere egingo da, eta, ikastalde gisa, balioespen bat emango dute, honako alderdi hauek ebaluatuz:

- Gehien gustatu zaizkien jarduerak.
- Gutxien gustatu zaizkien jarduerak.
- Ikasleen edota irakaslearen inplikazioa.
- Lehen unetik azkenekora bitartean bilakaerarik sumatu den.
- Azpimarratu beharreko beste alderdiren bat.

### **Saioaren amaiera 4'**

Atal honetan, zer moduz sentitu diren aztertuko dute ikasleek, eta atseden hartzeko eta hurrengo eskola-saiorako indarrak hartzeko denbora pixka bat utziko zaie; horrez gain, egindako lan onaren saria ere izango da (atsedena emanez buruari, ikasitakoa barneratzeko).



## OTOITZAK

### 4. otoitza: ESTIMA DEZAGUN

**Aurreikusitako denbora:** 20'

**Jarduera mota:** Abesti bati buruzko gogoeta, eta ebaluazioa.

**Laburpena:** Astean zehar egindako lanaren ostean, tarte bat hartuko dugu Jesusek zorionaz zer mezu ematen digun eta zoriona bilatzeko zer proposatzen digun aztertzeko, gutako bakoitzak Jainkoak emandako talentuekin zer egiten duen ikusteko.

**Girotzea:** Otoitza ikasgelan bertan egin daiteke edo kaperan. Hobe biribilean kokatzen badira, erdi-erdian kanpainaren horma-irudia dutela.

#### Jarraibideak:

- Talentu, dohain edo bertuteak idatzita dituzten paper-zerrendak prestatuko dira. Paper-zerrenda asko beharko ditugu, horietako bakar bat ere ez izateko pertsona jakin batekin identifikatzeko modukoa. Paper-zerrenda horietako bakoitzean, talentu zehatz bat idatziko da. Horrelakoak izan daitezke: *“Biolin-jotzaila handia izateko talentua daukazu zuk”*; *“Gaitasun handia daukazu lagunak egiteko”*; *“Talentu handia duzu hizlari bikaina izateko”*; *“Futbol-jokalari handia izateko dohainak daukazu”*; *“Bakegile handi izan zaitezke zu, zure talentuari esker”*; *“Lider ona izateko bertuteak daukazu”*; *“Misiolari handia izateko gaitasuna duzu”*; *“Ingurukoak zoriontsu egiteko dohaina daukazu zuk”*, etab. Ikasleak ikasgelan sartu aurretik, tolestu egingo dira paper-zerrendak, eta kartoizko kaxa batean sartuko dira. Garrantzi handia du talentu edo dohain horiek ez izatea haur jakin batekin soilik identifikatzeko modukoak.

1. Ebanjelioaren irakurketa: Mateo 25, 14-30 Talentuen parabola

2. Irten dadila ikasle bat aurrera, eta irakur ditzala kaxatik paper-zerrendak hartuz guk izan ditzakegun talentuak.

3. Orri bat (post-it bat) emango zaio ikasle bakoitzari, eta bere talentuen zerrenda bat egiteko eskatuko diogu. Baina argi ibiltzeko esango die, ez baitiete utzi behar gainerako ikaskideei zerrenda hori ikusten. Gero, txandan-txandan talentu bat esateko esango diegu. Hori egiten doazen bitartean, kanpainako horma-irudian itsatsiko dituzte (erdian kokatuko da aurrez horma-irudi hori).

4. Otoitzaldia amaitzeko, ondoren datorren otoitza irakurriko dute denen artean.

**Otoitza:** Jauna, hainbat ahotsen bidez, geldialdi bat egiteko, bizitzaren arnasa patxadatsua eta bizitako bizitza baten xumetasuna berreskuratzeko dei egiten didazula sentitzen dut neuregan.

la ez naiz ohartu ere egiten nire nahasmenduaz, beti neure gauzetan eta besteenetan sartuta! Sendotasun falta handia badut ere, Zu Zeu sentitzen zaitut niregan, eta ni neu izateko eta inguruan ditugun bitartekoen propaganda eta zaraten artean nire buruari nahasten ez uzteko gonbita egiten didazu, azaleko bizimodu materialista batera bideratzen bainaute, bizimodu arin hori ezartzen baitidate indarrez, “beharrezkoak ez diren” beharrez betetzen bainaute. Bai, Jauna: aitortzen dut bizitza osasuntsua bizitzeko eta neure buruarekin eta besteekin bakean bizitzeko oso gutxi behar dudala berez, eta bizimodu horrek zoriontsuago egingo nindukeela, ziurtasun osoz.

Handiak dira, ordea, horri jartzen dizkiodan trabak eta oztopoak. Baina badakit, “Nire aieneak

entzuten dituzu Zuk, eta ez nauzu bazterrean uzten". Jauna, emadazu zure Seme Jesu Kristoren eredia, haren xumetasuna eta umiltasuna berreskuratzeko gaitasuna, haren Hitzari jarraituz, Zuegan dagoen Jakindurian oinarrituta bizi nadin eta egin dezadan aurrera, eta ez nire ahalmenetan oinarrituta. Zure Ama Andre Maria Sortzez Garbiak, apaltasunaren eta xumetasunaren giza eredu denak, lagun diezadala berreskuratu nahi dudan bizimodu xaloaren balioa aurkitzen berriro. Amen.



## **ERANSKINAK** (ikasleekin erabiltzeko materiala)

### **1. eranskina: DIRUA ETA ZORIONA: ARRANTZALE BATEN ISTORIAO**

Bazegoen behin amerikar bankari bat Karibeko herri txiki bateko kaian, arrantzale bakarra zekarren txalupa bat nola zetorren begira. Zenbait atun hori zeuden txaluparen barruan, eta ez nolana hikoak. Arrainen kalitateagatik arrantzalea goستن hasi zen gizon amerikarra, eta ale horiek harrapatzeko zenbat denbora behar izan zuen galdetu zion. Tartetxo bat besterik ez zuela behar izan erantzun zion besteak. Amerikarrak, orduan, zergatik ez zuen denbora gehiago egin arrantzaz eta, horrela, arrain gehiago harrapatu galdetu zion. Familiaren une hartako beharrei erantzuteko aski zuela arrain hura esan zion arrantzaleak. Egunean zehar zer egiten zuen galdetu zion amerikarrak hurrena. Eta arrantzaleak: “Berandu arte lo egiten dut; arrantzan jarduten dut pixka batez, seme-alabekin jolasten naiz gero, siesta egiten dute neure emaztearekin, herrira jo ohi dut gauen ardotxo batzuk hartzera, eta gitarra jotzen dut lagunekin. Bizimodu atsegina daukat, eta badut nahikoa zeregin.”

Amerikarrak, orduan: “Harvarden graduatu nintzen ni, eta lagun zaitzaket. Denbora gehiago pasatu beharko zenuke arrantzan, eta, irabaziekin, txalupa handiagoa erosi behar zenuke. Txalupa handiagoak irabazi gehiago ekarriko lizkizuke, eta zenbait txalupa eros ahal izango zenituzke horrela; ustekabean, arrantza-ontzien flota handi baten jabe egin zaitzake. Arraina bitartekari bati saldu ordez, lantegi bati sal diezaiokezu zuzenean, eta zeure lantegia ireki dezakezu gero. Produktzioa, prozesatzeko modua eta banaketa kontrolatu behar zenituzke. Herrixka hau utzi, eta hiriburura joan behar zenuke, etengabe hedatzen joango den zure enpresa hori hobeto kontrolatzeko”.

Arrantzaleak galdetu zion orduan: “Baina zenbat denbora beharko nuke hori guztia egiteko?”

Amerikarrak: “15-20 urte”.

“Eta gero?”, galdetu zion arrantzaleak.

Barrez hasi zen amerikarra, eta onena ez zuela entzun oraindik esan zion. “Garaia iristean, zure enpresaren akzioak saldu beharko zenizkioke jendeari. Aberastu egingo zinateke! Miloi mordo poltsikora!”

“Miloi mordo..., eta gero zer?”

“Erretiroa har dezakezu orduan. Kostaldeko herri txiki batera joan, eta berandu arte lo egin; tartetxo bat har dezakezu arrantzarako, seme-alabekin jolas zaitzake, emaztearekin siesta egin dezakezu... Gauero-gauero joan zaitzake herrira, txikito batzuk hartzera, eta gitarra joz ibil zaitzake lagunekin”.

Arrantzaleak orduan:

“Eta ez ote daukat ba horixe orain?”

## 2 eranskina: FELICIDAD, SHOTTA FT. MORODO

<https://www.youtube.com/watch?v=Vvhz8dWuqsM>

Nadie es feliz para siempre, aprovecha tu presente, felicidad intermitente.

Eres la psique más bonita que uno puede tener; eres la chica más cara y más mala, ve tú a saber; si cuando vienes, vienes de verdad o de broma, no se a todas horas y a sola, hoy enganche a tu placer.

Yo quiero que esta canción suene como un niño al nacer con el miedo y el llanto, de todo por conocer; buscando la felicidad quizás te puedas perder yo sólo quiero sentirte, como la primera vez.

Tú sólo quieres salir de este mundo oscuro, por fin dejar atrás toda la movida negativa en un please. Es complicado como el tiempo y la vida por decidir. Hay caminos duros, procuro tenerte por aquí.

Felicidad ¿dónde estás? enséñame el camino; a veces creo que no existes, que eres un estado de ánimo.

Nadie es perfecto tú piensas eso, si sale del corazón, lo que escribes tendrá más peso.

Piensa que el odio es un lastre, apártalo del medio la vida sin amor, es el poso de un cementerio. Eres la droga la que mata la tristeza la que limpia las lágrimas en el alma cuando todo pesa

**La felicidad, toda la vida buscándola y si quieres saber dónde está  
observa tu recorrido, mi hermano ella siempre ha estado a tu lado contigo  
y la felicidad, si ya la tienes compártela y si no no vale nada**

Felicidad para cada hombre en cada nación

Felicidad, vente para acá que yo te canto; hay quien no es feliz con 100 millones en el banco. Se nota la cara, la actitud, cuando uno está feliz, se le enciende la luz.

A veces la razón no sirve, no funciona, no sucede hay personas que nunca se olvidan, porque el corazón no quiere; la sonrisa de una madre, eso es felicidad; la vida mejor, sin prisa el positivismo se guía.

Trabaja cada día para ser feliz, difícil de conseguir, hay esta la meta prii

Dale amor a tus amigos y a tus enemigos sí; no te vayas a la cama con rencor, déjalo fluir

Se portaron mal contigo, no seas vengativo; el olvido y el perdón son el mayor castigo; tu novia te dejo, sácate del aire; si el amor se acabó, yo lo que no quiero es engañarme.

Lo que no se suelta en lágrimas, se va con los suspiro; yo sólo suelto un te quiero, cuando el corazón me obliga; y digo bum, felicidad intermitente; aprovecha tu presente, nadie es feliz para siempre.

**La felicidad, toda la vida buscándola y si quieres saber dónde está.  
Observa tu recorrido mi hermano ella siempre ha estado a tu lado contigo  
y la felicidad, si ya la tienes compártela y si no no vale nada  
felicidad para cada hombre en cada nación**

Felicidad en la tormenta, es un rayo de sol  
después de la batalla, recibir bendición  
vivir lejos del odio y más cerca del amor  
felicidad es tremenda sensación

Porque la vida con felicidad es más intensa  
vivir rodeado de tinieblas no compensa  
la felicidad es la mayor recompensa  
mucho más que oro, que carros y prendas

**La felicidad, toda la vida buscándola y si quieres saber dónde está  
observa tu recorrido mi hermano ella siempre ha estado a tu lado contigo  
y la felicidad, si ya la tienes compártela y si no no vale nada  
felicidad para cada hombre en cada nación**